



SOINUA IRATZARRI

KONPOSITOREENTZAT DEIALDIA

Euskal Herriko Musika Bulegoak 2019-2020 ikasturtean zehar burutuko den Soinua Iratzarri proiektuan parte hartzeko deia egin nahi du.

ZER DA SOINUA IRATZARRI?

Soinua Iratzarri sorkuntza musikala eta euskal musikagileen ezagutza bateratzen dituen proiektua da. Berariazko formakuntza musikalik ez duten ikasleei musika lan baten sorkuntza prozesuan parte hartzeko aukera ematen zaie musikagile profesionalen esku.

Proiektu honen hirugarren edizioa 2019-2020 ikasturtean zehar garatuko da Euskal Herriko hiru eskolatan eta abiapuntua Juan Crisóstomo de Arriagaren *Los esclavos felices* opera izango da, 200 urte beteko baitira konpositoreak aipatutako lana idatzi zuenetik. Honez gain, konpositorearen *Nada y mucho* obraren zati bat eta honen garaikidea izan zen Fanny Mendelssohn sortzailearen lan batzuk ere aurkeztuko dira. Obra hauen moldaketak bi konpositorek idatzi beharko dituzte proiektuan parte hartuko duen sei instrumentu jolez osatutako talde batentzat (akordeoia, perkusioa, klarineta, flauta, bibolina eta biolontxelo).

Beste hiru konpositore ere, zuzendari pedagogiko baten laguntzaz, izango dira prozesu honetan lanean arituko diren eragileak. XIX. mendeko musika, bizitza, Juan Crisóstomo de Arriaga eta Fanny Mendelssohn abiapuntu gisa hartuta, umeak musika garaikideko sorkuntza prozesu batean murgilduko dira eskola bakoitzera gerturatuko den konpositorearen laguntzaz. Kurtso amaieran eskola bakoitzak antolatuko duen kontzertu batean aurkeztuko dituzte sortutako obra berriak, beraiekin lanean aritu den konpositorearen eta sei musikariek batera.

Erreferentzia modura, pasa diren edizioetako laburpen hauek ikus daitezke:

Soinua Iratzarri 2015-2016: <https://www.youtube.com/watch?v=cmvQqE7Vie0>

Soinua Iratzarri 2017-2018: <https://www.youtube.com/watch?v=JPXuwnU5udQ>

DEIALDIA:

A. ESKAERA: Juan Crisóstomo de Arriaga eta Fanny Mendelssohnen obra batzuen transkripzioak egiteko gustatuko litzaieken konpositoreei zuzenduta dago.

Hautatutako bi konpositoreen artean honako piezak transkribatu beharko dituzte:

Juan Crisóstomo de Arriaga

Los esclavos felices (obertura)

Nada y mucho

Fanny Mendelssohn

Sei pianorako pieza (op.5, 4.)

Nokturnoa sol minorrean

Pianorako pieza (1820)

Konpositore bakoitzari ordainduko zaion diru kopurua: 1.100€

B. ESKAERA: proiektuan aktiboki parte hartzea gustatuko litzaieken konpositoreei zuzenduta dago. Hiru konpositore hautatuko dira honetarako.

Konpositore bakoitzaren ardurak hauek lirateke:

1. 2019-2020 ikasturtean zehar eskola bateko 10-11 urteko ikasleekin izango dituzten 6 sesioak prestatu eta prestatutakoa beraiekin landu, zuzendari pedagogiko baten laguntzaz. Hau da, azalpenean aipatutako sorkuntza prozesua garatu.

2. Ikasturte amaierarako 2 edo 3 obra labur konposatu, ikasleen proposamenak, ideiak eta haiekin garatutako esperimenduak sorkuntza hauetan txertatuz, eta kurtso amaierako kontzertuan parte hartu, lan hauek aurkeztuz.

Konpositore bakoitzari ordainduko zaion diru kopurua: 2.100 €

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

A. ESKAERA:

- Hautagaiaren kurrikuluma.
- Azalpen testu bat, non musika transkripzioekin lotuta izan dituzten esperientzia azaltzen den.
- Hautagaiak burututako bi transkripzioen aurkezpena.

B. ESKAERA:

- Hautagaiaren kurrikuluma
- Azalpen testu bat, non hautagaiak proiektuari buruzko hausnarketa bat aurkezten duen eta prozesuan zehar burutzea gustatuko litzaizkioken ekintza edo ideien berri ematen duen (500 hitz gehienez).
- Hautagaiak konposatutako ganbera musika talde txikirako bi obren aurkezpena.

OHARRAK:

- **Bi modalitateetara bidalitako proposamenak epaimahai espezializatu batek baloratuko ditu.**
- **Euskeraren ezagutza izatea beharrezkoa izango da B modalitatean hautatua izateko.**

**DEIALDIA MARTXOAREN 18TIK APIRILAREN
12A ARTE EGONGO DA IREKITA (BIAK BARNE)**

**Bidali proposamenak helbide
elektroniko honetara:
maria@musikabulegoa.eus
Informazio gehiago behar baduzue,
telefono honetara dei dezakezue:
688 77 47 20**



**musika
bulegoa**

euskal herriko musika
bulego elkartea

Musikagileak